



NAFARROAKO MENDIALDEKO IKA
EUSKALTEGIEN EUSKARA ALDIZKARIA

ETXETIK PLAZARA

HARRIAK SUTAN, GISU

SARIA:

Lesakako
LINDDURRENBORDA
sagardotegian
bi lagunentzako
otordua

2017ko OTSAILA

151. ALEA



IRAKURLAN

GISU LANETAN

Oraindik hor daude, bide bazterrean normalki, landa eta aspaldiko baserrien ondoan gehienetan. Zoritxarrez, gehienak nahiko **zikin** daude, sasiek harturik. **Harrizkoak** dira eta horietariko aunitzetan, poliki-poliki, harriak banan-banan erortzen ari dira. Halere, oraindik ere gure paisaiaren parte dira eta gaur egun erabiltzen ez baditugu ere, ez zaie garai batean izan zuten garrantzia ukatzen ahal.

Asmatu al duzu zertaz ari garen? Bai, gisu-labeez ari gara, eta ale honetan horretaz, eta gisuaren erabileraz mintzatuko gara, hain zuzen ere.

Dirudienez, XVIII. eta XIX. mendeetan, artoak gurean izan zuen iraultza txikiarekin batera, gisuaren produkzioa ere nabarmen goratu zen. Geureak **bezalako** lur buztintsuak urratu eta zatitu egiten ditu, gogortasuna kentzen die eta nolabait, berez **hotza** den lurra berotu eta medeatu egiten du. Hori dela eta, gisuaren erabilerak landa-eremuetan onura handiak ekarri zituen uztari dagokionez, uzta **hobe eta oparagoak** izatea suposatu baitzuen.

Gisua bertze hainbat lanetarako ere erabili izan da, errate baterako eraikuntzan. Baserri eta borda zaharretako paretei **arretaz** begiratzen badiegu, harrien artean gisua ikusi ahal izanen dugu; lehen, hondarra eta urarekin nahastuz, eraikitzeo beharrezkoa den mortairua egiten zuten. Era berean, paretak xuritzeko ere erabiltzen zen, bai pintatzeko, bai desinfektatzeko. Aunitzetan anil-hautsa delakoa gehitzen zitzaion, honela, hain **berezia** den kolore urdinxka lortuz.

Zomorroen eta hainbat gaitzen kontra ere erabili izan da material hau, adibidez, arbolen enborra honekin xuritzen zen, edo haziak, **gisu pixkat nahasita** ereiten ziren. Etxeko abereen hanketako gaitzak sendatzeko ere erabiltzen zen.

Ikusten dugunez, gisuak paper garrantzitsua betetzen zuen baserrietan eta erran dezakegu, XIX. mendearen bukaera arte, bere erabilera arrunt ohikoa izan zela. Baina XX. mendeko ongari kimiko eta porlanaren produkzio industrialaren etorrerarekin batera, gisuaren erabilerak behera egin zuen modu nabarmenean. Horri guztiari poliki-poliki baserrietako jendea fabriketara lanera joan izana edota arto laborantzaren gainbehera gehituz gero, ondorioa gisuaren garrantziaren gutxitzea izanen zen. Horrela, gisu-labeak poliki-poliki erabiltzeari utzi zitzaion eta ondorioz, galtzen joan dira, gaur egun aurkitzen ditugun egoerara ailegatu arte.

Gisugintzarako erabilerarik gabe, baserritar aunitzek gisu-labea **zabortegi moduan** erabili zuten eta bertze batzuek, eraikuntzako harriak erabili zituzten baserriko konponketak egiteko. Halere, hainbat eta hainbat aurki ditzakegu gure bailaretan, eta oraindik ere, egon badago garai batean **garrantzitsuak** izan ziren labe horiek moldatzen eta **garbi** mantentzen duen baserritarrik.

LAN ETA LAN

NOLA edo NOLAKOA?

Bi forma hauek maiz nahasi egiten ditugu eta modu okerrean erabiltzen ditugu, inguruko hizkuntzetan ez dira bereizten eta segur aski, horixe izanen da nahasketaren arrazoi nagusi-etako bat. Hori dela eta, bi kontzeptu hauek garbi uzteko, hurrengo lerroetan nola erabiltzen diren ikusiko dugu. Gainera, irakurlan atalean beltzez markatu ditugu kasu hauetariko batzuk, honela, adibide garbiak izan ditzazun.

Bi adibide hauekin hasiko gara:

- 1) **NOLA** dago haurra? Haurra ongi dago.
- 2) **NOLAKOA** da haurra? Haurra ona da.

Ikusten dugunez, ez dute gauza bera erran nahi. Lehendabiziko adibidea (nola) adberbioa da, eta adberbio batekin erantzuten zaio (ongi). Bigarren adibidea berriz (nolakoa), adjektiboa da eta adjektibo batekin erantzuten zaio (ona).

Hurrengo bi adibideotan, pluralarekin zer gertatzen den ikusiko dugu:

- 1) **NOLA** daude gisu-labeak?
 - Gisu-labeak zikin daude. (ongi)
 - Gisu-labeak zikinak daude. (gaizki)
- 2) **NOLAKOAK** dira gisu-labeak?
 - Gisu-labeak zaharrak dira.

Kasu honetan, NOLA deklinatzen ez dela ikus dezakegu, baina NOLAKOA aldiz, deklinatu egiten da, NOLAKOAK galdetzailea eta zaharrak erantzunak sortuz.

Azkeneko bi adibide hauetan, galderaren erranahia nola aldatzen den ikusiko dugu:

- 1) **NOLA** eraman duzu? Izebaren furgonetan.
- 2) **NOLAKOA** eraman duzu? Zegoen ederrena.

Ikusten dugunez, erranahia arras aldatzen da lehenbiziko kasutik bigarreneira: NOLA-k moduaz galdetzen du eta NOLAKOA-k itxura edo ezaugarrietaz.

Goitian aipatutako ideia guzietan, laburpen taula hau osatzen ahal dugu:

NOLA

- Ez da deklinatzen ahal.
- Adberbioen bidez erantzuten zaio normalki.
- Moduaz galdetzen da.
- Egoera iragankor batez galdetzen da.

NOLAKOA

- Deklinatzen ahal da: nolakoa, nolakoak
- Adjektiboen bidez erantzuten zaio.
- Ezaugarriez galdetzen da.
- Egoera iraunkor batez galdetzen da.


Eta orain zure txanda! Aukeratu kasu bakoitzean modu zuzena:

- 1) a) Nola / b) Nolakoa da zure etxea?
- 2) Izeba Inesen baratzea nahiko a) garbia / b) garbi dago.
- 3) a) Nola / b) Nolakoak dira zure gurasoak?
- 4) Itsasoko ura a) hotz / b) hotza dago.
- 5) Hau nirea a) bezalakoa / b) bezala da.
- 6) Nola egin duzu patata tortilla? a) Presaka / b) Nahiko handia egin dut.
- 7) Zurea a) bezala / b) bezalako auto bat ikusi dut.
- 8) Bizilagunak leihoak a) garbi / b) garbiak mantentzen ditu.




MINTZAK DANTZAN

Aurreko atalean gisu-labeek eta gisuak berak izandako garrantziaz mintzatu gara eta oraingoan berriz, irudi batzuk ekarri dizkizugu. Ikusiko duzunez, gisu-labe irudi pare bat daude, baita gisua prestatzeko erabiltzen ziren tresnen marrazkiak ere. Irudiak bai, baina izenak? Azpiko zerrendatik aukeratu eta eman izena azpiko irudiei, horixe izanen da zure lana.



1)



2)

3)

4)



5)




6)




7)



8)



9)



10)

- a) Ahoa: gisu-labearen atea, hemendik sartzen ziren abarrak sua piztua mantentzeko.
- b) Lehorra: ahoaren aitzinean dagoen aterpea.
- c) Hauspoa: sugarrak kontrolatzeko erabiltzen zen haize sarrera.
- d) Suko-haga: hauspoan sortzen ahal ziren errautsak garbitzeko tresna.
- e) Kuxina: normalki, pago berdez egindako tresna, sua xaxatzeko erabiltzen zena.
- f) Buru-zarea: gisua garraiatzeko erabiltzen zen. Neurri gisa ere erabiltakoa.
- g) Meta: gisu-labe gainetik ateratzen zen gisu-harri multzoa.
- h) Donberoa: materialak garraiatzeko erabiltzen zen iraulki-gurdia.
- i) Adaroa: lehorra garbitu eta txukuntzeko tresna.
- j) Lera: materialak garraiatzeko erabiltzen zen gurpilik gabeko orga.



Karegintzaren garrantzia ikusi dugu, ondorengo testuan lan gogor horri aurre egiteko otorduek zuten garrantziaz ariko gara, baita bukaeran ospatzen zen bestaz ere.

Ikusi dugunez, gure eskualdean gisuaren produkzioak garrantzi handia izan zuen eta karobiak martxan ziren bitartean, lan-taldeak zaintzea etxekoandreen ardura izaten zen. Hiruzpalau gizasemez osatutako taldeek hamabi orduko lanaldia burutzen zuten. Indartsuak ziren eta lan gogor horri aurre egiteko hagitx garrantzitsuak ziren etxekoek prestatzen zituzten otorduak. Labeak gau eta egunez piztua egon behar zuenez, otorduak arduraz prestatzen zituzten etxekoandreek: gosaria, hamaiketako, bazkaria, berendua, eta eguna ongi akitzeko, afari oparoa. Hitzordu horietan gazta, ardoa, bildoskia eta banabar gorria, zakoteak edo fianbreak... jaten zituzten.

Gisu-labeak itzali ondoren, izugarrizko bestak ospatzen ziren merezitako akabaila emateko. Izen ezberdinak hartzen ditu besta honek: karobi-eztegua, karobi-ezteia, gisu-labe besta...


Egindako gisua banatu ondoren, prozesuan parte hartzen zutenak etxeratu egiten ziren garbitu eta arropaz aldatzeko. Gero, gisu-labearen jabearen etxean elkartzen ziren bukaerako afaria dastatzeko asmotan (batzuetan 30 bat lagun biltzeraino ailegatzen ziren). Besta hori gustu handiz prestatzen zen, baserrietako abererik ederrenak eta ganbarako gutiziarik hoberenak eskainiz. Afari horietan honako menu hauek zerbitzatzen omen ziren: oilo salda, txitxirioak, buru-arraiak (bildots burua eta erraiak arroza eta saldaz hornituak), zuri eta beltzak (bildots odol gatzatua eta tripaki hestebeteak arrautza eta tipulaz nahasiak). Afari horietan bildoskia, oilaskoa, gaztanbera (kaikueta prestatua eta sutarri goriez egina) ere jaten omen zituzten. Kafea eta likoreak ere ausarki edanez, abestiak eta txistu doinuak entzuten omen ziren, baita bertsolariek egindako bat-bateko bertsoak ere. Zurrume dantza da besta horietan aditzen zen melodi-etako bat. Hitzik gabeko dantza zen (orpoaren dantza zen, eskuineko orpoak indarrez lurra jotzen zuten).

Besta gaueko ordu biak edo hirurak arte luzatzen zen. Tenore horretan sorgin-afaria burutzen zen (pipermin bixiaz egindako baratxuri zopa, oilokia eta bildoskia, kafea, edaria eta batez ere, umore ona). Oilar-raren kukurrukuarekin batera etxeratzen ziren, baina etxeko jabeak joandakoei izugarri eskertzen zien egindako lana. Kare horrekin urteko uzta ona izanen zelakoan kontent etxeratzen ziren.

Besta horiek garai hartako auzolanaren erakusgarriak ederrenetakoak dira.

Etixerako bidean honako bertso eta abesti hauek entzungai izaten ziren:

*"Goazen etxera goazen etxera
Erretiratu ordu da,
Gizon deboxak argi astera
Erretiratzen baitira!"*



Testuan beltzez jarri ditugun hitzen parekoak harrapatuko dituzu gisu-labearen barrenean. Elkar itzatzu!

ERNE, SARIRAKO!

- a) ugari, erruz _____
- b) kapritxorik _____
- c) garbantzuk _____
- d) ekoizpenak _____
- e) Gisu _____

- f) naroak _____
- g) amaiera _____
- h) mandioko _____
- i) gisu-labeak _____
- j) mamia _____



NOLAKOA OTE?

GISU-LABE MOTAK

Gisu-labeen1..... eta erabilpena ikusi dugu orain arte, ondorengo testuan gisua lortzeko erabiltzen ziren karobi motak2..... behar ditugu, arragoa erakoa eta zakarrezkoak. Gure eskualdean gisu-labe kopuru handia egon da, bitxikeria gisa aipatzen3..... da Baztanen bakarrik 200 baino gehiago zenbatu eta katalogatu direla.



Arragoan, edo frantsez-karobian, erabilitako4..... zaharragoa dirudi. Gisu-labe honen zuloan erregaia eta harria nahasian sartzen ziren; hasteko, egur mordo bat eta harri maila bat horren gainean. Labearen beheko atakatik gisu hautsa atera ahala goiko zulotik egur eta harriz betetzen zen. Nahi adina denbora kontu daiteke arragoa erako karobia5..... Kearen kolore zuriak tenperatura behar baino baxuagoa zela adierazten zuen eta urdinxkak ondo berotzen ari zela. Labearen azpialdeko paretan zeuden6..... airearen sarrera arautzen zuten.

Zakarrezkoa edo zakar-karobiak teknika landuagoa eskatzen zuen. Labearen eraikuntza finagoa zen eta haren barruan kare-harrizko ganga sendoa antolatzen7..... aski trebea izan behar zen. Kare-harrizko ganga batean harria pilatzen zen. Labearen8....., sua pizteko ahoa zegoen eta bigarren zulo batek airearen sarrera erregulatzen zuen. Gangaren gaina harriz bete eta gero beheko atakatik, gau eta egun, etengabe egurra sartuz, lau egunez sutan kontu behar zen. Keari erreparatuta zekiten noiz itzali sua. Egosketa bukatzearekin, sua itzaltzen zuten eta egun pare batez, hozten utzi ondoren, gisu bizia ateratzen zen.

Testuan zortzi hitz kendu ditugu eta behean hiruna aukera jarri ditugu. Hiru aukera horietatik zuzenena zein den asmatzea da zure lana, animo bada!

1- a) historia
b) historia
c) istorioa

2- a) aztertu
b) haztertu
c) astertu

3- a) al
b) ahal
c) hal

4- a) teknikak
b) teknika
c) teknikek

5- a) erretzea
b) erretzen
c) erretzeari

6- a) zuloak
b) zuloa
c) zuloek

7- a) jakitea
b) jakin
c) jakiteko

8- a) azpialdean
b) azpikaldean
c) azpi-aldean

ERANTZUNAK



LAN eta LAN (3. or.):

1- b; 2- b; 3- b; 4- a; 5- a; 6- a; 7- b; 8- a

HITZAK DANTZAN (4. or.):

1- a; 2- g; 3- b; 4- c; 5- j; 6- e; 7- d; 8- i; 9- f; 10- h

NOLAKOA OTE? (6. or.): 1- b; 2- a; 3- b; 4- c; 5- b; 6- c; 7- c; 8- a

150. aleko sariketa erantzunak – BITXILOREAK (5. or.):

1- c; 2- a; 3- c; 4- b; 5- b; 6- b; 7- a; 8- a; 9- a; 10- c; 11- b; 12- a

ETXETIK PLAZARA lehiaketa

Gure lehiaketan parte hartzeko, ariketa baten erantzunak bidali beharko dituzu. Ale honetan, **5. orrialdeko** erantzunak dira beheko aldera pasatu beharrekoak. Marratik moztu eta postaz bidali azkeneko orrialdeko helbideren batera. Hurrengo alean ariketa horren erantzuna eta sariaren irabazlearen izena agertuko dira.

Saria: Lesakako
Linddurrenborda
Sagardotegian
bi lagunentzako otordua

150. aleko irabazlea:
Luis Mari Retegi Iturbide
Berakoa

ETXETIK PLAZARA liburua SALGAI

IKA euskaltegietan eta honako liburu-denda eta saltokietan:

- Beran; Agara eta Igone - Lesakan; Xagu - Arantzan; Ilargi okindegia;
- Igantzín; Bi Bide denda - Donezteben; Ostiz, Blas eta IKA euskaltegia
- Elizondon; Axular eta Nafarpress - Leitzan; Maimur, Astiz eta IKA euskaltegia.

6 eurotan, jantzi zure euskara eta lagundu gure lana!



OHARRA: erantzunak martxoaren 3a baino lehen bidal itzazu.



SARIRAKO ARIKETA

BITXILOREAK (5. or.):

- | | |
|-----------|-----------|
| a - _____ | f - _____ |
| b - _____ | g - _____ |
| c - _____ | h - _____ |
| d - _____ | i - _____ |
| e - _____ | j - _____ |



ZATOZ EUSKALTEGIRA!!

EUSKARA
indartu nahi duzu?

Solasa aberastu,
irakurritz eta idatziz
giro ederrean
trebatu eta ikasi!

ZATOZ EUSKALTEGIRA!

Zeure herrian,
Ekainera arte,
astean 4 ordu

MAILA GUZTIAK
eta **EGA**

Matrikula zaitetz:

IKAbortziriak, 948 637 796,
bortziriak@ikaeuskaltegiak.eus

IKAmalerreka, 948 451 555,
malerreka@ikaeuskaltegiak.eus

euskara
errazago
egiten **ika**

Aldizkari honen egileak:

**Bortziriak eta
Malerrekako IKA
Euskaltegiak**

Diseinua, marrazkiak
eta maketazioa:

Joseba Larratxe

Laguntzaileak:

**Nafarroako
Mendialdeko
EUSKARA
MANKOMUNITATEAK**

ZOZKETARAKO DATUAK

Izen-abizenak:.....

Helbidea:..... Herria:.....

Telefonia:..... Adina:.....

HORRA GURE HELBIDEAK

Bortzirietako IKA Euskaltegia.
Arretxea 22, 31770 Lesaka.
bortziriak@ikaeuskaltegiak.eus

Malerrekako IKA Euskaltegia.
Rosa seminario 6, behe, 31740 Doneztebe.
malerreka@ikaeuskaltegiak.eus

ika